

Isabel Kapanaga, jarduneko
presidentea
Xabier Aizpurua
Amaia Jauregiberri
Juan Carlos Jauregui
Antxon Rodríguez
Usoa Urbietta
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

17/01 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren
Batzorde Iraunkorraren 2017ko
otsailaren 2ko bilkurara bazterrean
aipatutako kideak joan ziren. Batzorde
horrek adostasunez eman du ondoko
irizpena: **Euskal Autonomia
Erkidegoko unibertsitatez kanpoko**

**ikastetxe publikoetan aldi baterako irakasle premiak estaltzeko hautagaien
zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duen abuztuaren 27ko Agindua
laugarren aldiz aldatzeko Agindu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bitartez (EHAA 2012/09/11) arautu zuen ordezkapenatarako hautagaien zerrenden kudeaketa, zeina 2013ko apirilaren 18ko, 2014ko apirilaren 16ko eta 2015eko ekainaren 8ko Aginduen bidez aldatu baitzen.

II. EDUKIA

4 artikulua ditu, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren beste horrenbeste xedapen aldatzen dituztenak.

- **1. artikulua:** 2. ataleko 22. artikulua aldatzen du, ezabatu egiten duelarik erreferentzia hau: *"zerrenda horrek bere baitan hartuko du zerrenden garbiketaren emaitza"*.
- **2. artikulua:** 25. artikulua ezabatzen du, zeinak zerrendaren garbiketa prozedura ezartzen baitu (apirilaren 18ko Aginduan aldatua).
- **3. artikulua:** 44. artikulua 1. ataleko j) azpi-atala ezabatzen du (apirilaren 16ko aginduak aldatua).
- **4. artikulua:** zehazten du noiz sartuko den araua indarrean.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak abuztuaren 27ko Aginduaren eta haren ondorengo aldaketan inguruko irizpenak eman ditu (13/02; 14/02; eta 15/02 irizpenak).

Oraingoan, helburua da hautagai zerrendaren garbiketa prozedura ezabatzea, apirilaren 18ko Aginduaren idazkeran honela jasotzen dena:

1. – Birbarematze-prozesu bakoitzean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hautagaien zerrendak, orokorra eta bereizitakoak, garbituko ditu honela: aurreko bost ikasturteen barruan, garbitzeari dagokion ikasturtea barne, aipatutako Sailaren zerbitzura lanik egin ez duten pertsonak zerrendetatik kenduko dira. Zerrendetatik kentzeko arau hori bost ikasturtetan, gutxienez, zerrendetan sartuta egon diren izangaiei aplikatuko zaie.

2.– Egingo den denbora-zenbaketan benetako zerbitzutzat hartuko dira amatasunagatik edo aitatasunagatik uko egindako, seme edo alaba bat zaintzeko jarduera-eten iragankorreko edo atzerrian GKE baterako zerbitzuak ematen aritzeko aldiak, edo karrerako funtzionarioentzat zerbitzu bereziak aitortzea dakarten egoerak».

Zioen azalpenean adierazten den bezala, neurri hori hartu da behin ebaluatu ondoren eragin dezakeen inpaktua, nabarmen murriztuko baita hautagai kopurua; era berean, eragina izango luke lan egiteko moduan egon arren azken bost urteetan lanerako deirik jaso ez duten hautagaiengan eta Hezkuntza Sailak ordezkapenei aurre egiteko dituen premietan.

Garbiketa prozesu hori ez da inoiz egin, apirilaren 18ko Aginduaren laugarren xedapen iragankorrak aurreikusten baitzuen 2017-18 ikasturtetik aurrera hasiko zela aplikatzen.

Kontseilua ados dago neurri horrekin, eta 13-15 txostenean dioen bezala, berriro adierazi nahi du Hezkuntza Sailak planifikatu egin behar dituela egin beharreko aldaketak, kontuan hartuz, batetik, irakasleen adina eta erretiro aurreikuspenak, eta, bestetik, irakaskuntza profil berrien premia (eleaniztasuna, IKTak) eta ikastetxeen egonkortasuna.

Alderdi puntualak

- Kontseiluak uste du, ohikoa den bezala, 4. artikulua amaierako xedapena izan behar lukeela.
- Arauaren laugarren aldaketa denez, argitasuna lortze aldera, komenigarria litzateke Agindu berri bat idaztea gaur arte egin diren aldaketa guztiak jasotzeko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2017ko otsailaren 2an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

JARDUNEKO PRESIDENTEA

Sin.: Isabel Kapanaga Ruiz de Loizaga

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA